

## Xedapen Orokorrak

### LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

#### Zk-819

415/1998 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde kantauriarra) behin betiko onesten duena.

28/1997 Dekretuaz behin betiko onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen 8. atalak, Ingurune Fisikoaren antolamendua izenekoa, lurrazaleko uren babesak jasotzen du antolamendu-kategorien artean, ibai eta errekek eta horien babes-zonak osatua. Horien antolamendua Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planera jotzen du. Bi isurialdeen arazoak, kantauriarra eta mediterraniarra, desberdinak direnez, ibaiertzak eta errekaertzen antolamenduari dagokionez, agiria isurialde bakoitzaren arbera idatzi da, dekretu honen gai izanik isurialde kantauriarri dagokion plana.

Kantauri isurialdeko ibaiertzak eta errekaertzak behar bezala antolatzea da gure herrian dauden erronketatik handiena. Gure ibaiak lantzean behin sortarazten dituzten uholdeak direla eta izaten diren gertakari penagarrien ondorioz, aztertu beharra dago berariaz eta sakonki gaia. Gure bailara eta haranen egitura geografikoa gehi duten sakontasuna eta lur falta dira, dauden ibar azalera apurrak zuzenean kolonizatzeko joera piztu dutenak, ertzak antolatzeko irizpideak ez datozela bat gure ibaien antolamendu egokitik sortutako beharrezanekin.

Plan honek Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen zehaztapenak garatzen ditu bi bideri jarraituz, bata, irizpideak zehaztu eta gauzatuz uholdeak saihesteko ubideei eman beharreko babesari dagokionez, eta bestetik ubideen ertzak babesteko irizpideak finkatuz, erriberako landarediaren balio ekologikoen arbera, ubide bakoitzeko tarreak antolatzeko irizpideetan bukatzeko, ertzetan eman daitezkeen erabilera desberdinei dagokienez, batez ere hirigintza eta eraikuntza arloko erabilerei.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

#### Nº-819

DECRETO 415/1998, de 22 de diciembre, por el que se aprueba definitivamente el Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Vertiente Cantábrica).

El Capítulo 8 de las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco aprobadas definitivamente mediante el Decreto 28/1997, denominado «La Ordenación del Medio Físico» recoge entre las categorías de ordenación la de «Protección de Aguas Superficiales», formada por los ríos y arroyos y su correspondiente zona de protección, remitiendo su ordenación al Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV. Al ser distinta la problemática de las dos vertientes, cantábrica y mediterránea, en cuanto a la ordenación de las márgenes de los ríos y arroyos, se ha afrontado la redacción del documento de forma independiente para cada una de las dos vertientes, siendo el objeto del presente Decreto el Plan correspondiente a la vertiente cantábrica.

La correcta ordenación territorial de las márgenes de los ríos y arroyos de la vertiente cantábrica constituye uno de los retos más importantes que existen en nuestro país. Los tristes acontecimientos relativos a inundaciones provocadas por nuestros ríos con cierta periodicidad obligan a un análisis específico y profundo del tema. La configuración geográfica de nuestros valles, unida a su profundidad y a la escasez de suelo han provocado una tendencia a colonizar de forma directa las escasas superficies de vegas existentes con unos criterios de ordenación de las márgenes poco generosos con las necesidades derivadas de una ordenación adecuada de nuestros ríos.

El presente Plan desarrolla las determinaciones de las Directrices de Ordenación Territorial siguiendo dos vías: por un lado, concretando y materializando los criterios en cuanto a la protección a otorgar a los cauces en orden a evitar inundaciones en las diferentes avenidas de agua y, por otro, estableciendo los criterios de protección de las márgenes de los cauces en atención al valor ecológico de su vegetación de ribera, para concluir en unos criterios de ordenación de los diferentes tramos de cada cauce en cuanto a los diferentes usos que pudieran darse en sus márgenes, fundamentalmente en lo relativo a los usos urbanísticos y edificatorios.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaierantzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Kantauri isurialdea) hau gauzatze prozesu luze baten ondorio da, honako hauek jasotako informazio eta arau alde guztiak jasotzen dituena: ur eta kostalde buruzko legedietan, Plan Hidrológico Norte III, Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralean (UPPI), ingurune fisikoari buruz egindako azterlanetan, epe labur eta ertainera egin beharreko ubiderapenei buruzko aurreikuspenetan, zubiei dagokien ondare kulturalaren azterlanetan eta, azkenik, indarrengo hirigintza plangintzaren ebaluaketan.

Lurralde Plan Sektorial honen funtsezko proposamen da ibaibide guztiak arazo homogeneoko ibaitartetan eta zonatan banatzea honako hiru osagaien analisiaren arabera: ingurugiro, hidrauliko eta hirigintza.

Ingurugiroari dagokionez, planak lau eremu bereizten ditu berariaz: lehentasuneko interes naturalistiko zonetako ertzak, ondo artatutako erriberako landaredia duten ertzak, higadura- eta lerradura-arriskua edo/eta akuiferoen urrakortasuna duten, irristaketa edo akuiferoen zaurgarritasun arriskua duten zonetako ertzak eta berreskuratzeko premia duten ertzak.

Hidraulika-osagaiari dagokionez, planak zortzi mailatan tartekatzen ditu ibai eta errekek, 1 eta 10 km.<sup>2</sup> bitarteko azalera duten adar-arroko erreketatik 600 km.<sup>2</sup> baino handiagoko adar-arroa duten ibaitarteetarako.

Azkenik, hirigintzari dagokionez, planak lau alde desberdintzen ditu: landa-eremuko ertzak, hiriarteko komunikazioetarako azpiegiturek betetzen dituzten ertzak; garatutako eremuetako ertzak; eta hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuetako ertzak.

Aipatutako alde bakoitzaren arabera eta finkatutako tartekatze eta zonifikazioaren arabera aplikatzen da araudia. Planaren helbururik nagusia da osagai bakoitza bere neurrian integratzea, haran hondoan kokatutako lurren hirigintza ahalmena bateratuta uholdeetatik sortutako arazo hidraulikoarekin eta ertzen egoera naturalak zaintzearekin.

Gainera, planak zenbait irizpide jasotzen ditu urtegien ertzak antolatzeko bai eta hirigintza prozesutik sortutako muga batzuk ere ibai eta erreka estaldurari dagokienez.

Ondorioz, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko abenduaren 22an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

El presente Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV (Vertiente Cantábrica) se configura como resultado de un dilatado proceso de elaboración en el que se han considerado todos los aspectos informativos y normativos contenidos en las legislaciones de aguas y costas, en el Plan Hidrológico Norte III, en el Plan Integral de Prevención de Inundaciones (P.I.P.I.), en los diversos estudios desarrollados sobre medio físico, en las diferentes previsiones sobre encauzamientos a realizar a corto y medio plazo, en los estudios de patrimonio cultural relativos a puentes y finalmente en la evaluación del planeamiento urbanístico vigente.

Una de las propuestas fundamentales de este Plan Territorial Sectorial es la división de todos los cursos de agua por tramos de problemática homogénea y su zonificación en base al análisis de tres componentes: medioambiental, hidráulica y urbanística.

En función de la Componente Medioambiental el Plan distingue específicamente cuatro zonas: Márgenes en Zonas de Interés Naturalístico Preferente, Márgenes con Vegetación de Ribera Bien Conservada, Márgenes en Zonas con Riesgo de Erosión, Deslizamiento y/o Vulnerabilidad de Acuíferos, y Márgenes con necesidad de Recuperación.

En función de la Componente Hidráulica, el Plan tramifica los ríos y arroyos en ocho niveles, desde arroyos con cuenca afluyente entre 1 y 10 km.<sup>2</sup> de superficie hasta tramos de ríos con superficie de cuenca afluyente superior a 600 km.<sup>2</sup>.

Finalmente, según la Componente Urbanística el Plan diferencia cuatro zonas: Márgenes en Ámbito Rural, Márgenes ocupadas por Infraestructuras de Comunicaciones Interurbanas, Márgenes en Ámbitos Desarrollados y Márgenes en Ámbitos con Potencial de Nuevos Desarrollos Urbanísticos.

En función de cada una de las componentes arriba citadas y de la tramificación y zonificación establecidas se aplica la normativa. El principal objetivo del Plan es el de integrar en su justa medida cada una de las tres componentes compatibilizando el potencial urbanístico de los terrenos ubicados en el fondo de los valles con la problemática hidráulica derivada de las inundaciones y con la preservación de las condiciones naturales de las márgenes.

Además, el Plan contiene una serie de criterios para la ordenación territorial de las márgenes de los embalses así como unas limitaciones en relación a coberturas de los ríos y arroyos derivadas del proceso urbanístico.

En virtud de lo anteriormente expuesto, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 22 de diciembre de 1998

## XEDATU DUT:

*Atal bakarra*

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibairtzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (Kantauri isurialdea) behin betiko onetsi da. Horren araudia dekretu honen eraskinean jasotzen da.

## AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko abenduaren 22an.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza  
eta Ingurugiro sailburua,  
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA

## DISPONGO:

*Artículo Único*

Se aprueba definitivamente el Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Vertiente Cantábrica), cuya normativa se incluye como Anexo al presente Decreto.

## DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de diciembre de 1998.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Ordenación del Territorio,  
Vivienda y Medio Ambiente,  
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

## ERANSKINA

**EAEko IBAIERTZAK ETA ERREKAERTZAK  
ANTOLATZEKO  
LURRALDEAREN ARLOKO PLANA - ISURIALDE  
KANTAURIARRA**

ARAUDIA

- A.- ALDERDI OROKORRAK**
- A.1.- LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN GAIA
  - A.2.- ANTOLAMENDU-EREMUA
  - A.3.- ITSASOKO ETA LEHORREKO HERRI-JABARIAREKIKO MUGAKIDE DIREN ITSASADARREN ETA LURREN INGURUKO BERARIAZKO ALDERDIAK
  - A.4.- DEFINIZIO TERMINOLOGIKOAK
- B.- ERTZAK ZONATAN ETA IBAITARTETAN BANATZEA**
- B.1.- ERTZAK ZONATAN ETA IBAITARTETAN BANATZEA
  - B.2.- ERTZAK ZONATAN BANATZEA BEREN INGURUGIRO-OSAGAIAREN ARABERA
  - B.3.- IBAIBIDEAK ARRO HIDRAULIKOKA IBAITARTETAN BANATZEA
  - B.4.- ERTZAK ZONATAN BANATZEA BEREN HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ARABERA
- C.- ARAUDI OROKORRA**
- C.1.- UBIDE GUZTIETAN APLIKATZEKO ARAUDIA
  - C.2.- INTERES KULTURALEKO ELEMENTUAK BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA
  - C.3.- HORNIDURA-URTEGIAK ETA UR-KAPTAZIOAK BABESTEARI BURUZKO ARAUDIA
  - C.4.- UBIDEETATIK HURBIL DAUDEN AZPIEGITUREI BURUZKO ARAUDIA
- D.- BERARIAZKO ARAUDIA INGURUGIRO-OSAGAIAREN ARABERA**
- D.1.- OINARRIZKO ARAUDIA
  - D.2.- LEHENTASUNEZKO INTERES NATURALISTIKOKO ZONETAKO ERTZETARAKO ARAUDIA
  - D.3.- ONDO ARTATUTAKO LANDAREDIA DUTEN ERTZETARAKO BERARIAZKO ARAUDIA

## ANEXO

**PLAN TERRITORIAL SECTORIAL  
DE ORDENACIÓN DE MÁRGENES DE LOS RÍOS  
Y ARROYOS DE LA CAPV - VERTIENTE  
CANTÁBRICA**

NORMATIVA

- A.- CUESTIONES GENERALES**
- A.1.- OBJETO DEL PLAN TERRITORIAL SECTORIAL
  - A.2.- ÁMBITO DE ORDENACIÓN
  - A.3.- CUESTIONES ESPECÍFICAS DE LAS RÍAS Y DE LOS TERRENOS COLINDANTES CON EL DOMINIO PÚBLICO MARÍTIMO-TERRESTRE
  - A.4.- DEFINICIONES TERMINOLÓGICAS
- B.- ZONIFICACIÓN Y TRAMIFICACIÓN DE LAS MÁRGENES**
- B.1.- ZONIFICACIÓN Y TRAMIFICACIÓN DE LAS MÁRGENES
  - B.2.- ZONIFICACIÓN DE LAS MÁRGENES SEGÚN SU COMPONENTE MEDIOAMBIENTAL
  - B.3.- TRAMIFICACIÓN DE LOS CURSOS DE AGUA POR CUENCAS HIDRÁULICAS
  - B.4.- ZONIFICACIÓN DE LAS MÁRGENES SEGÚN SU COMPONENTE URBANÍSTICA
- C.- NORMATIVA GENERAL**
- C.1.- NORMATIVA DE APLICACIÓN A TODOS LOS CAUCES
  - C.2.- NORMATIVA SOBRE PROTECCIÓN DE ELEMENTOS DE INTERÉS CULTURAL
  - C.3.- NORMATIVA SOBRE PROTECCIÓN DE EMBALSES DE ABASTECIMIENTO Y CAPTACIONES DE AGUA
  - C.4.- NORMATIVA SOBRE INFRAESTRUCTURAS PRÓXIMAS A LOS CAUCES
- D.- NORMATIVA SEGÚN LA COMPONENTE MEDIOAMBIENTAL**
- D.1.- NORMATIVA BÁSICA
  - D.2.- NORMATIVA PARA LAS MÁRGENES EN ZONAS DE INTERÉS NATURALÍSTICO PREFERENTE
  - D.3.- NORMATIVA ESPECÍFICA PARA MÁRGENES CON VEGETACIÓN BIEN CONSERVADA

- |   |   |
|---|---|
| <p>D.4.- HIGADURA- ETA LERRADURA-<br/>ARRISKUA EDO/ETA AKUIFEROEN<br/>URRAKORTASUNA DUTEN<br/>ERTZETARAKO BERARIAZKO ARAUDIA</p> <p>D.5.- BERRESKURATZEKO PREMIA DUTEN<br/>ERTZETARAKO BERARIAZKO ARAUDIA</p> <p><b>E.- UHOLDEAK PREBENITZEARI ETA<br/>JARDUKETA HIDRAULIKOEI BURUZKO<br/>BERARIAZKO ARAUDIA</b></p> <p>E.1.- LURPEAN GERA DAITEZKEEN ZONEI<br/>BURUZKO BERARIAZKO ARAUDIA</p> <p>E.2.- JARDUKETA HIDRAULIKOEI BURUZKO<br/>BERARIAZKO ARAUDIA</p> <p><b>F.- BERARIAZKO ARAUDIA<br/>HIRIGINTZA-OSAGAIAREN ARABERA</b></p> <p>F.1.- LANDA-EREMUKO ERTZETARAKO<br/>BERARIAZKO ARAUDIA</p> <p>F.2.- HIRIARTEKO KOMUNIKAZIOETARAKO<br/>AZPIEGITUREK BETETZEN DITUZTEN<br/>ERTZETARAKO BERARIAZKO ARAUDIA</p> <p>F.3.- GARATUTAKO EREMUETAKO<br/>ERTZETARAKO BERARIAZKO ARAUDIA</p> <p>F.4.- HIRI-GARAPEN BERRIEK EGITEKO<br/>POTENTZIALA DUTEN EREMUETAKO<br/>ERTZETARAKO BERARIAZKO ARAUDIA</p> <p>F.5.- ARAUDI OSAGARRIA</p> <p><b>G.- LAP APLIKATZEKO ARAUDIA</b></p> <p>G.1.- AGIRIAREN OSAKETA</p> <p>G.2.- EAEko IBAIERTZAK ETA ERREKAERTZAK<br/>ANTOLATZEKO LURRALDEAREN<br/>ARLOKO PLANAREN (Isurialde<br/>Kantauriarra) ZEHAZTAPENEN IZAERA<br/>LOTESLEA EDO/ETA ORIENTATZAILEA</p> <p>G.3.- AXEDAPEN GEHIGARRIAK</p> <p>G.4.- ALDI BATERAKO XEDAPENAK</p> <p>G.5.- PLANAREN JARRAIPENAREN MEMORIA</p> <p>G.6.- LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN<br/>BERRIKUSPENA</p> <p>G.7.- LAParen ALDAKETA</p> <p>G.8.- LAParen INTERPRETAZIOA</p> | <p>D.4.- NORMATIVA ESPECÍFICA PARA<br/>MÁRGENES EN ZONAS CON RIESGO<br/>DE EROSIÓN, DESLIZAMIENTOS<br/>Y/O VULNERABILIDAD DE<br/>ACUÍFEROS</p> <p>D.5.- NORMATIVA ESPECÍFICA PARA<br/>MÁRGENES CON NECESIDAD DE<br/>RECUPERACIÓN</p> <p><b>E.- NORMATIVA ESPECÍFICA SOBRE<br/>PREVENCIÓN DE INUNDACIONES<br/>Y ACTUACIONES HIDRÁULICAS</b></p> <p>E.1.- NORMATIVA ESPECÍFICA SOBRE<br/>ZONAS INUNDABLES</p> <p>E.2.- NORMATIVA ESPECÍFICA PARA<br/>ACTUACIONES HIDRÁULICAS</p> <p><b>F.- NORMATIVA ESPECÍFICA SEGÚN LA<br/>COMPONENTE URBANÍSTICA</b></p> <p>F.1.- NORMATIVA ESPECÍFICA PARA<br/>MÁRGENES EN ÁMBITO RURAL</p> <p>F.2.- NORMATIVA ESPECÍFICA PARA<br/>MÁRGENES OCUPADAS POR<br/>INFRAESTRUCTURAS DE<br/>COMUNICACIONES INTERURBANAS</p> <p>F.3.- NORMATIVA ESPECÍFICA PARA<br/>MÁRGENES EN ÁMBITOS<br/>DESARROLLADOS</p> <p>F.4.- NORMATIVA ESPECÍFICA PARA<br/>MÁRGENES EN ÁMBITOS CON<br/>POTENCIAL DE NUEVO<br/>DESARROLLO URBANO</p> <p>F.5.- NORMATIVA COMPLEMENTARIA</p> <p><b>G.- NORMAS DE APLICACIÓN DEL P.T.S.</b></p> <p>G.1.- COMPOSICIÓN DOCUMENTAL</p> <p>G.2.- CARÁCTER VINCULANTE Y/U<br/>ORIENTATIVO DE LAS<br/>DETERMINACIONES DEL PLAN<br/>TERRITORIAL SECTORIAL DE<br/>ORDENACIÓN DE MÁRGENES DE<br/>LOS RÍOS Y ARROYOS DE LA CAPV<br/>(Vertiente Cantábrica)</p> <p>G.3.- DISPOSICIONES ADICIONALES</p> <p>G.4.- DISPOSICIONES TRANSITORIAS</p> <p>G.5.- MEMORIA DE SEGUIMIENTO DEL<br/>PLAN</p> <p>G.6.- REVISIÓN DEL PLAN TERRITORIAL<br/>SECTORIAL</p> <p>G.7.- MODIFICACIÓN DEL PTS</p> <p>G.8.- INTERPRETACIÓN DEL PTS</p> |
|---|---|

**EAE-KO IBAIERTZAK ETA ERREKAERTZAK  
ANTOLATZEKO LURRALDEAREN  
ARLOKO PLANA - ISURIALDE  
KANTAURIARRA**

ARAUDIA

**A.- ALDERDI OROKORRAK**

**A.1.- LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN  
GAIA**

EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzeak Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planak Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen irizpideak, Lurrazaleko Uren inguruko 5.2.D —5.2. Ingurune Fisikoaren Elementu eta Prozesuei buruzko Artezpide Orokorrak— eta 6.8.7. —6.8. Ingurune Fisikoaren Antolamendu Kategoriak— epigrafeei dagozkienak, garatzen eta xehetasunez azaltzen ditu.

**A.2.- ANTOLAMENDU-EREMUA**

LAParen aplikazio-eremua honakoek osatzen dute: beren urak Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetan isurtzen dituzten arro hidrografiko kantauriarretako ibaibide guztien —sortzen direnetik itsasoratzten diren arte— bi aldeetan dauden 100 metro zabalerako lurzoru-zerrenden multzoak eta urtegien inguruko 200 metro zabalerako lurzoru-zerrendek.

LAParen aplikazio-eremua bat dator Kalera, Karrantza, Kadagua, Aguera ibaien arroen Bizkaiko Lurralde Historikoko zatiekin, Artibai, Lea, Oka, Sollube, Estepona, Butroe, Gobela, Asua, Galindo, Barbadun eta Nerbioi eta Ibaizabal ibaien arroen lurralde osoarekin eta zuzenean Bizkaiko itsasertzean itsasoratzen diren kostaldeko erreken gainerako arro txikiekin. Halaber bat dator Bidasoa, Urumea eta Oria ibaien arroen Gipuzkoako zatiekin, Jaizubia, Oiartzun, Añorga, Inurritza, Urola, Narrondo, Deba eta Saturrarán ibaien lurralde osoarekin eta zuzenean Gipuzkoako itsasertzean itsasoratzen diren kostaldeko erreken gainerako arro txikiekin.

**PLAN TERRITORIAL SECTORIAL  
DE ORDENACIÓN DE MÁRGENES  
DE LOS RÍOS Y ARROYOS DE  
LA CAPV - VERTIENTE CANTÁBRICA**

NORMATIVA

**A.- CUESTIONES GENERALES**

**A.1.- OBJETO DEL PLAN TERRITORIAL  
SECTORIAL**

El objeto del presente Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV desarrolla y pormenoriza los criterios de las Directrices de Ordenación Territorial correspondientes a los epígrafes 5.2.D de «5.2. Directrices Generales relativas a los Elementos y Procesos del Medio Físico» y 6.8.7. de «6.8. Categorías de Ordenación del Medio Físico», relativos a Aguas Superficiales.

**A.2.- ÁMBITO DE ORDENACIÓN**

El ámbito de ordenación del presente P.T.S. está constituido por el conjunto de las franjas de suelo de 100 metros de anchura situadas a cada lado de la totalidad de los cursos de agua de las cuencas hidrográficas cantábricas vertientes en los Territorios Históricos de Bizkaia y Gipuzkoa, desde su nacimiento hasta su desembocadura en el mar, así como las franjas de suelo de 200 metros de anchura situadas en el entorno de sus embalses.

Este ámbito de aplicación del P.T.S. corresponde a las partes del Territorio Histórico de Bizkaia de las cuencas de los ríos Calera, Carranza, Cadagua, Agüera, a la totalidad territorial de las cuencas de los ríos Artibai, Lea, Oka, Sollube, Estepona, Butrón, Gobela, Asúa, Galindo, Barbadún y Nervión e Ibaizabal, y a las restantes cuencas menores de los arroyos litorales que desembocan directamente en la costa vizcaína; así como a las partes de las cuencas de los ríos Bidasoa, Urumea y Oria, recayentes en Gipuzkoa, a la totalidad territorial de las cuencas de los ríos Jaizubia, Oiartzun, Añorga, Inurritza, Urola, Narrondo, Deba y Saturrarán y a las restantes cuencas menores de los arroyos litorales que desembocan directamente en la costa guipuzcoana.

**A.3.- ITSASOKO ETA LEHORREKO  
HERRI-JABARIAREKIKO MUGAKIDE  
DIREN ITSASADARREN ETA LURREN  
INGURUKO BERARIAZKO ALDERDIAK**

Itsasadarren ingurune espazialean, LAP honetan barne hartutako ertzen antolamenduko irizpideen aplikazioa, dagokion moduan, Itsasertzen Legeriatik eratorritako erregulazioaren bidez koordinatuko da. LAParen dokumentazio grafikoan, adieraziko ditugu itsasoko eta lehorreko herri-jabariaren mugabanaketa-lerroak.

Ildo horretatik, itsasoko eta lurreko herri-jabariarekiko mugakide diren lurretarako Itsasertzen Legeriak ezartzen dituen mugapenez eta 196/1997 Dekretuak, itsasoko eta lurreko herri-jabariaren babeserako zortasunonetak erabileren baimenei buruzkoak, araututako jardunbideaz gain, plan honetatik eratorritako erregulazioak ere bete beharrekoak izango dira.

Gainera:

- Urdaibai Biosfera Erreserbaren eremuari dagokionean LAPak 5/1989 Legetik, Urdaibai Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzkotik, eratorritako antolamendura igorriko gaitu.
- Inurritza Itsasadarren Biotopo Babestu deklaraturako eremuari dagokionean LAPak aipaturako deklaraziotik eratorritako arautzera igorriko gaitu.
- Txingudiko Arearen eremuari dagokionean LAPak Txingudiko Natur Baliabideak Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezitik eratorritako antolamendura igorriko gaitu.
- Azkenik, LAAetako interes naturalistikoko areen zerrenda irekian barne hartutako eremuetan (Zierbenako eremua, Pobeñako padurak eta La Arena hondartza, Lea eta Berriatuko kostaldeko ibarrak, Urola ibaiaren bokalea, Inurritzako itsasadarra eta dunak, Oria ibaiaren itsasadarreko paduraguneak), 3/1998 Legea, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra, izango da aplikagarri berorren aldi baterako hirugarren xedapenean adierazitakoaren arabera.

Horrezaz gain, Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorren 50. artikulua ezarritakoari jarraiki, itsasadarrei eragiten dien planoen eta proiektuen edozein aldatuta edo zabalpeni, jada baimenduta, gauzatuta edo gauzatzeko prozesuan dagoena izan daitekeenari, aipaturako Lege horretan barne hartutako ingurugiroaren gaineko eragina ebaluatzeko edozein jardunbide aplikatu ahal izango zaio, ingurugiroan kalte esanguratsurik izan dezakeen kasuetan.

**A.3.- CUESTIONES ESPECÍFICAS DE LAS RÍAS Y  
DE LOS TERRENOS COLINDANTES CON EL  
DOMINIO PÚBLICO  
MARÍTIMO-TERRESTRE**

En el entorno espacial de las rías la aplicación de los criterios de ordenación de márgenes contenidos en el presente P.T.S. se coordinará, en la forma que corresponda, con la regulación derivada de la Legislación de Costas. En la documentación gráfica del P.T.S. se reflejan las Líneas de Deslinde del Dominio Público Marítimo-Terrestre.

En tal sentido, además de las limitaciones que para los terrenos colindantes con el dominio público marítimo-terrestre impone la legislación de Costas y del procedimiento regulado en el Decreto 196/1997, sobre autorizaciones de uso en la zona de servidumbre de protección del dominio público marítimo-terrestre, serán de obligado cumplimiento las regulaciones derivadas del presente Plan.

Así mismo:

- En el ámbito de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, el P.T.S. se remite a la ordenación derivada de la Ley 5/1989 de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.
- En el ámbito declarado como Biotopo Protegido de la Ría de Inurritza el P.T.S. se remite a la regulación derivada de la citada declaración.
- En el ámbito del Área de Txingudi, el P.T.S. se remite a la ordenación derivada del Plan Especial de Protección y Ordenación de los Recursos Naturales de Txingudi.
- Finalmente, en lo que son ámbitos de rías contenidos en el Listado Abierto de Áreas de Interés Naturalístico de las DOT (Área de Zierbena, Marismas de Pobeña y Playa de La Arena, Vaguadas costeras de Lea y Berritua, Desembocadura del Urola, Dunas y Ría de Iñurritza, Enclaves de Marisma en la Ría del Oria), les será de aplicación la Ley 3/1998, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco de acuerdo con lo señalado en la Disposición Transitoria Tercera de la misma.

Además, de conformidad con lo establecido en el artículo 50 de la Ley General de Protección del Medio Ambiente, cualquier cambio o ampliación de planos y proyectos que, afectando a las rías, se halle ya autorizado, ejecutado o en proceso de ejecución, podrá ser sometido a alguno de los procedimientos de evaluación de impacto ambiental contemplados en la referida Ley, en el caso de que puedan tener efectos negativos significativos sobre el medioambiente.

## A.4.- DEFINIZIO TERMINOLOGIKOAK

LAP honi dagokionean honakoa izango da araudi honetan barne hartutako kontzeptu nagusien definizio terminologikoa:

Ibaia: 10 Km.<sup>2</sup> baino gehiagoko adar-arroa duen ibaibidea.

Erreka: 1 -10 Km.<sup>2</sup> arteko adar-arroa duen ibaibidea.

Isurketa: Km.<sup>2</sup> 1 baino gutxiagoko adar-arroa duen ibaibidea.

Urtegia: Presa handi baten bidez haran baten ahoa ixteko euste artifiziala (15 metro baino gehiagoko altuera edo 500.000 m.<sup>3</sup> baino gehiagoko euste-bolumena).

Ubide-zabalera: Gehienezko ohiko ur-goraldietan uren mailak definitutakoa dugu.

Gehienezko ur-goraldiaren emaria elkarren hurreneko 10 urtetan, korrontearen portaera hidraulikoaren adierazgarri izango direnetan, zehar izandako gehienezko urteko emariaren batez besteko gisa lortzen da.

Erribera: Ubideen aldeko zerrenda, ur-maila txikien eta gehienezko ohiko ur-goraldiek definitutakoaren artekoa.

Ertz: Ubidearen eskuinaldean eta ezker aldean berorrekiko mugakide den lurra.

Eragin-eremu: Bat dator Uren Legean definitutako ubideen jagoletza-zonarekin eta Itsasertzen Legean definitutako itsasoko eta lurteko herri-jabariaren babeserako zortasun-zonarekin eta ertzen gehienezko zabalera mugatzen du, LAPean barne hartutako araudiaren aplikazioari dagokionean.

Ubideak babesteko lerroak edo ubide-erretiroak: Ubidearen alde banatan eraikuntzarako edo urbanizatorako gutxieneko erretiro-lerroak ezarri dira.

Dena dela ubidearen eta gutxieneko erretiro-lerroaren artean ibaia eta hurbileko hiri-bilbea elkarri egokitzeko jarduketak egin ahal izango dira, hala nola, parkeak, oinezkoentzako erriberako pasealekuak edo oinezkoentzako ibairako sarbideak.

Adar-arroa: ibaibide batek eta bere ibaiadarrek drenatutako azalera topografiko osoari deitzen diogu adar-arroa, beti ere ibaibideko sekzioarean barruan eta sekzio horretako uretatik gora.

## A.4.- DEFINICIONES TERMINOLÓGICAS

Definición terminológica a los efectos de este P.T.S. de los principales conceptos contenidos en la presente normativa:

Río: Todo curso de agua con una cuenca afluyente mayor de 10 Km.<sup>2</sup>.

Arroyo: Todo curso de agua con una cuenca afluyente entre 1 y 10 Km.<sup>2</sup>.

Escorrentía: Todo curso de agua con una cuenca afluyente menor de 1 km.<sup>2</sup>.

Embalse: Retención artificial de agua cerrando la boca de un valle mediante una gran presa (altura superior a 15 m. o volumen de retención superior a 500.000 m.<sup>3</sup>).

Ancho de cauce: Es el definido por el nivel de las aguas en las máximas crecidas ordinarias.

El caudal de la máxima crecida ordinaria se obtiene como la media de los máximos caudales anuales producidos durante 10 años consecutivos, que sean representativos del comportamiento hidráulico de la corriente.

Ribera: Franja lateral de los cauces comprendida entre el nivel de aguas bajas y el definido por las máximas crecidas ordinarias.

Margen: Terreno que linda con el cauce a derecha e izquierda de éste.

Zona de afección: Se corresponde con la zona de policía de cauces definida en la Ley de Aguas y con la zona de servidumbre de protección del dominio público marítimo-terrestre definida en la Ley de Costas y delimita la amplitud máxima de las márgenes a efectos de la aplicación de la normativa contenida en este PTS.

Líneas de Protección o Retiro de Cauce: a ambos lados del cauce se establece la línea de retiro mínimo de la edificación o de la urbanización.

No obstante entre el cauce y la línea de retiro mínimo de la urbanización podrán realizarse actuaciones de adaptación entre el río y la trama urbana próxima, tales como parques, paseos peatonales de ribera o accesos peatonales al río.

Cuenca afluyente: se define como cuenca afluyente en una sección de un curso de agua, la totalidad de la superficie topográfica drenada por ese curso de agua y sus afluentes, aguas arriba de la sección considerada.



**B.- ERTZAK ZONATAN ETA IBAITARTETAN BANATZEA****B.1.- ERTZAK ZONATAN EDO/ETA IBAITARTETAN BANATZEA**

I.- Ibaiertzak eta errekaertzak ondoren adierazi bezala banatuko dira zonatan edo/eta ibaitartetan LAP honen bidez:

- 1.- Ertzak zonatan banatzea ingurugiro-osagaiaren arabera.
- 2.- Ibaibideak ibaitartetan banatzea beren arro hidraulikoen arabera.
- 3.- Ertzak zonatan banatzea beren hiri-gintza-osagaiaren arabera.

LAP honen eremuaren puntu bakoitzari aplikatu beharreko araudia osagai bakoitzaren arabera dagozkion araudiak batera aplikatzetik lortutakoa izango da.

II.- Udal-plangintzak lurzoru urbanizaezineko ubideen ertzetan «Lurrazaleko Urak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina» kategoria ezarriko du, LAP honetatik eratorritako zonekin. Lurrazaleko urak babesteko lurzoru urbanizaezin horrek plan honen araudiaren F.1 atalaren 1. puntuan definitutako zabalerak izango ditu ertz bietan.

III.- Aurreko puntuan adierazitakoaz gain, udal-plangintzak, ubidearen bi aldeetako 100 metroko zerrendari dagokionean, Lurraldearen Arloko Plan honetan jasotako irizpideak hartu beharko ditu barne.

**B.2.- ERTZAK ZONATAN BANATZEA BEREN INGURUGIRO-OSAGAIAREN ARABERA**

Ingurune fisikoa babesteko zonak beren balio ekologikoak, paisajistikoak, produktiboak eta zientifikokulturalak artatzea, higadura edo akuiferoen poluzioa bezalako arrisku jakin batzuen aurrean babestea eta beren berezko bokazioarekin bat ez datozen erabilerak eta jarduerak direla eta degradatutako enklabeak berreskuratzea bermatzeko egokitasunari dagozkionak dira.

Lau zona berezi desberdindu dira berariaz, ingurugiro-babeserako oinarritzko politika orokor baten gain izan behar duten koalifikazio berezirik gabeko zonez gain:

**Lehentasunezko interes naturalistikoko zonetako ertzak.**

**Ondo artatutako landaredia duten ertzak.**

**Higadura- eta lerradura-arriskua edo/eta akuiferoen urrakortasuna dituzten zonetako ertzak (LAAetako baldintzatzaile gainjarriak).**

**Berreskuratzeko premia duten ertzak.**

**B.- ZONIFICACIÓN Y TRAMIFICACIÓN DE LAS MÁRGENES****B.1.- ZONIFICACIÓN Y/O TRAMIFICACIÓN DE LAS MÁRGENES**

I.- Las márgenes de los ríos y arroyos se zonifican y/o tramifican a través del presente PTS de la siguiente forma:

- 1.- Zonificación de las márgenes según su Componente Medioambiental.
- 2.- Tramificación de los cursos de agua según sus Cuencas Hidráulicas.
- 3.- Zonificación de las márgenes según su Componente Urbanística.

La normativa a aplicar a cada punto del ámbito del presente PTS será la resultante de la aplicación conjunta de la normativa que le corresponde en virtud de cada componente.

II.- El planeamiento municipal establecerá en las márgenes de los cauces en suelo no urbanizable la categoría de «Suelo No Urbanizable de Protección de Aguas Superficiales» con las zonas derivadas de este PTS. Este Suelo No Urbanizable de Protección de Aguas Superficiales tendrá en cada margen las anchuras definidas en el punto 1 del apartado F.1. de la Normativa del presente Plan.

III.- Además de lo señalado en el punto anterior el planeamiento municipal deberá recoger sobre la banda de 100 metros de anchura a cada lado de los cauces los criterios definidos en este Plan Territorial Sectorial.

**B.2.- ZONIFICACIÓN DE LAS MÁRGENES SEGÚN SU COMPONENTE MEDIOAMBIENTAL**

Las zonas de protección del medio físico son aquellas que obedecen a la conveniencia de garantizar la conservación de los valores ecológicos, paisajísticos, productivos y científico-culturales, a la defensa ante determinados riesgos como la erosión o la contaminación de acuíferos, o bien a la necesidad de recuperar enclaves degradados por usos o actividades incompatibles con su vocación intrínseca.

Se distinguen específicamente cuatro zonas especiales, además de las zonas sin especial cualificación que también deberán ser objeto de una política de protección medioambiental de carácter genérico básico:

**Márgenes en Zonas de Interés Naturalístico Preferente.**

**Márgenes con Vegetación Bien Conservada.**

**Márgenes en Zonas con Riesgo de Erosión, Deslizamientos y/o Vulnerabilidad de Acuíferos (condicionantes superpuestos de las DOT).**

**Márgenes con Necesidad de Recuperación.**

Hori zerrendatzeko ordena definitutako babes-mo-  
ten artean ezarritako hierarkiari dagokio. Dena dela zo-  
nak ez dira beren artean baztergarriak.

Zonatan banatze hori grafikoki islatu dugu ertzak  
antolatze mapen bilduman. Ingurugiro-osagaiaren al-  
derdiak, 1/25.000 eskalara.

Honakoa da aurrerago aipatutako zona berezi horien  
definizioa:

#### **Lehentasunezko interes naturalistikoko zonak.**

Honakoak joko dira lehentasunezko interes natura-  
listikoko zonak:

- Parte natural edo biotopo babestu deklaraturako  
zonak.
- Urdaibai Biosfera Erreserbako eta Txingudiko  
Areako Baliabide Naturalak Babesteko eta Anto-  
latzeko Plan Bereziko eremuak.
- «Natura 2000» Europako Sare Ekologikoan bar-  
ne hartzeko proposaturako lekuak.
- Lehentasunezko Interes Naturalistikoko Areak, In-  
gurugiro Sailordetzak argitaraturako EAEko Inte-  
reseko Espazio eta Enklabe Naturalen Katalogoan  
barne hartutakoak eta LAAetan interes naturalis-  
tikoko area gisa jasotakoak.

#### **Ondo artatutako landaredia duten ertzak**

Mota hau ubideetako erriberetan eta ertzetan dagoen  
landarediaren artapen-egoeraren arabera definitzen da,  
zaintzea komeni den landaredia duten ertzak dituzten  
ibaitarteak hautatuz.

#### **Higadura- eta lerradura-arriskua edo/eta akuif- eroen urrakortasuna duten ertzak.**

Honakoak hartuko dira barne zona honetan:

- Higadura- edo/eta lerradura-arriskua duten zona-  
tako ertzak (LAAetako baldintzatzaile gainjarriak).  
Ubidetik gertu dauden lurzoru ahulak edo/eta  
mendi-hegalen ezegonkortasuna duten areak dira,  
higadura-arazoak eta maila bateko zein besteko ler-  
radurak izateko arriskua dutenak. Honakoak  
hartu dira barne kategoria honetan:
  - Higadura aktiboko zonak
  - Lurrazaleko lerradurak
  - Mendi-hegaletako ezegonkortasuna.
- Akuiferoen urrakortasuna duten zonak (LAAeta-  
ko baldintzatzaile gainjarriak). EAEko Akuiferoek  
Poluzioaren aurrean duten Urrakortasunaren Ma-  
paren arabera (Ingurugiro Sailordetza), honela de-  
finitutako zonak dira:

El orden en que se relacionan responde a la jerarquía  
establecida entre las distintas clases de protección de-  
finidas, sin embargo las zonas no son excluyentes entre  
sí.

Esta zonificación queda reflejada gráficamente en la  
serie de Mapas de Ordenación de Márgenes. Aspectos  
de Componente Medioambiental, a escala 1/25.000.

La definición de cada una de las zonas especiales re-  
cogidas anteriormente es la que sigue.

#### **Zonas de Interés Naturalístico Preferente.**

Se consideran como zonas de Interés Naturalístico  
Preferente.

- Las zonas declaradas Parques Naturales o Biotopos  
Protegidos.
- Los ámbitos de la Reserva de la Biosfera del Ur-  
daibai y del Plan Especial de Protección y Orde-  
nación de los Recursos Naturales de Txingudi.
- Los lugares propuestos para su inclusión en la Red  
Ecológica Europea «Natura 2.000».
- Las Áreas de Interés Naturalístico Preferente in-  
cluidas en el catálogo de Espacios y Enclaves Na-  
turales de Interés de la CAPV recogidas en las  
D.O.T. como Áreas de Interés Naturalístico.

#### **Márgenes con Vegetación Bien Conservada**

Esta clase se define en función del estado de conser-  
vación de la vegetación existente en las riberas y már-  
genes de los cauces, seleccionando los tramos que pre-  
sentan márgenes cuya vegetación conviene preservar.

#### **Zonas con Riesgo de Erosión, Deslizamientos y/o Vulnerabilidad de Acuíferos**

Se consideran en esta zona:

- Las Zonas con Riesgo de Erosión y/o Deslizamien-  
tos (condicionante superpuesto de las DOT). Son  
las áreas con suelos frágiles y/o inestabilidad de la-  
deras próximas al cauce, con riesgo de sufrir pro-  
blemas erosivos e incluso deslizamientos más o me-  
nos significativos. Se incluyen en esta categoría:
  - Zonas de erosión activa.
  - Deslizamientos superficiales.
  - Inestabilidad de laderas.
- Las Zonas de Vulnerabilidad de Acuíferos (condi-  
cionante superpuesto de las DOT). Son las zonas  
definidas en el Mapa de Vulnerabilidad a la Con-  
taminación de los Acuíferos de la CAPV (Vicecon-  
sejería de Medio Ambiente) como de:

- Akuiferoen oso urrakortasun altuko zonak.
- Akuiferoen urrakortasun altuko zonak.

### Berreskuratzeko premia duten ertzak.

Hondakindegia, zaborteak, hondeaketak, betelanak, ubiderapen-lanak eta abar direla eta degradatutako lurra dira. Halaber kategoria honetan hartu dira barne beste edozein arrazoi dela eta beren kalitate ekologikoa gutxitu duten edo gomendioen arabera aktiboki birsortu behar diren zonak.

### B.3.- IBAIBIDEAK ARRO HIDRAULIKOKA IBAITARTETAN BANATZEA

LAPean barne hartutako ibaibide guztiak puntu bakoitzeko adar-arroaren azaleraren arabera 8 ibaitartetan banatzea ezarri da.

Honako eskala proposatu da hain zuzen ere:

Ibaitarteak	Adar-arroaren azalera (Km. <sup>2</sup> )
VI	600 Km. <sup>2</sup> <A
V	400 Km. <sup>2</sup> <A ≤ 600 Km. <sup>2</sup>
IV	200 Km. <sup>2</sup> <A ≤ 400 Km. <sup>2</sup>
III	100 Km. <sup>2</sup> <A ≤ 200 Km. <sup>2</sup>
II	50 Km. <sup>2</sup> <A ≤ 100 Km. <sup>2</sup>
I	10 Km. <sup>2</sup> <A ≤ 50 Km. <sup>2</sup>
0	1 Km. <sup>2</sup> <A ≤ 10 Km. <sup>2</sup>
00	A ≤ 1 Km. <sup>2</sup>

VI eta I arteko mailetakoa ibaitarteak 10 Km.<sup>2</sup> baino gehiagoko adar-arroa duten ibaibideei dagozkie. Horien azterketa partikularra orrialde grafikoan bildumetan garatu dugu 1/25.000 eskalara, hidraulikaren, ingurugiroaren eta hirigintzaren inguruko osagaiak kontuan izanik.

0 mailako ibaitarteak, 1 eta 10 Km.<sup>2</sup> arteko adar-arroa duten ibaibideei dagozkienek, erreka edo errete-na dute izena eta grafikoki islatu ditugu planaren kartografian, nahiz eta beren ertzen ezaugarriak ez izan berariazko azterketa xehe baten gai.

00 mailako ibaitarteak askotan aldizkakoak izaten diren eta Km.<sup>2</sup> 1eko arrora iristen ez diren ibaibideei dagozkie eta isurketa deitu ohi zaie.

Hona horiek xeheago:

#### a) Bizkaiko itsasertzerantz isurtzen duten ibaiak:

##### VI mailako ibaitarteak (600 km.<sup>2</sup> < A)

##### Nerbioi ibaiaren arroa

Nerbioi, 0 -24,4 km (Ibaizabalekiko elkargunea)

- Vulnerabilidad de acuíferos muy alta.
- Vulnerabilidad de acuíferos alta.

### Márgenes con Necesidad de Recuperación

Se corresponde con aquellos terrenos degradados por la presencia de escombreras, vertederos, excavaciones, rellenos, obras de encauzamiento, etc. También se incluyen las zonas que por cualquier otra causa hayan sufrido una disminución de su calidad ecológica y que se recomienda regenerar de forma activa.

### B.3.- TRAMIFICACIÓN DE LOS CURSOS DE AGUA POR CUENCAS HIDRÁULICAS

Se establece para el conjunto de los cursos de agua contemplados en el P.T.S. su segmentación en 8 tramos en función de la superficie de la cuenca afluyente en cada punto.

Concretamente se propone la siguiente escala:

Tramos	Superficie en Km. <sup>2</sup> de Cuenca afluyente
VI	600 Km. <sup>2</sup> <C
V	400 Km. <sup>2</sup> <C ≤ 600 Km. <sup>2</sup>
IV	200 Km. <sup>2</sup> <C ≤ 400 Km. <sup>2</sup>
III	100 Km. <sup>2</sup> <C ≤ 200 Km. <sup>2</sup>
II	50 Km. <sup>2</sup> <C ≤ 100 Km. <sup>2</sup>
I	10 Km. <sup>2</sup> <C ≤ 50 Km. <sup>2</sup>
0	1 Km. <sup>2</sup> <C ≤ 10 Km. <sup>2</sup>
00	C ≤ 1 Km. <sup>2</sup>

Los tramos de nivel VI a I corresponden a los cursos de agua con una cuenca afluyente superior a 10 Km.<sup>2</sup> cuyo estudio particularizado se desarrolla en las colecciones de hojas gráficas a escala 1/25.000 en sus componentes hidráulica, medioambiental y urbanística.

Los tramos de nivel 0, que corresponden a los cursos de agua con una cuenca afluyente entre 1 y 10 Km.<sup>2</sup>, se denominan arroyos o regatas y se reflejan gráficamente en la cartografía del Plan, aunque las características de sus márgenes no son objeto de un estudio específico detallado.

Los tramos de nivel 00 corresponden a los cursos de agua, en muchos casos intermitentes, que no alcanzan 1 Km.<sup>2</sup> de cuenca, se denominan escorrentías.

Su pormenorización es la siguiente:

#### a) Para los ríos vertientes al litoral vizcaino:

##### Tramos de Nivel VI (600 Km.<sup>2</sup> < C)

##### Cuenca del Nervión

Nervión, de 0 a 24,4 Km (confluencia con el Ibaizábal).

**V mailako ibaitarteak** ( $400 < A \leq 600$  Km.<sup>2</sup>)Nerbioi ibaiaren arroa

Nerbioi, 24,4 - 37,3 km (Larrunberekiko elkargunea).

Ibaizabal ibaiaren arroa

Ibaizabal, 0 - 6,6 km (Autopistarako peajearen zubia Usansolon).

Kadagua ibaiaren arroa

Kadagua, 0 - 14,6 km (Izalderekiko elkargunea).

**IV mailako ibaitarteak** ( $200 < A \leq 400$  Km.<sup>2</sup>)Nerbioi ibaiaren arroa

Nerbioi, 37,3 - 47,3 km (Palancarekiko elkargunea)

Ibaizabal ibaiaren arroa

Ibaizabal, 6,6 - 22,8 km (S. Antoniorekiko elkargunea)

Kadagua ibaiaren arroa

Kadagua, 14,6 - 24,7 km (San Cristobal erre-karekiko elkargunea)

**III kategoriako ibaitarteak** ( $100 < A \leq 200$  Km.<sup>2</sup>)Nerbioi ibaiaren arroa

Nerbioi, 47,3 - 58,4 km (Pagatzarekiko elkargunea)

Altube, 0 - 10,7 km (Argaitzarekiko elkargunea)

Ibaizabal ibaiaren arroa

Ibaizabal, 22,8 - 32,3 km (Solozabalekiko elkargunea)

Arratia, 0 - 5,5 km (Indusirekiko elkargunea)

Kadagua ibaiaren arroa

Kadagua, 24,7 - 36 km (EAEko muga)

Herrerías, 0 - 6,4 km (Rodaiegarekiko elkargunea).

Izalde, 0 - 1 km (Herreriasetikiko elkargunea).

Artibai ibaiaren arroa

Artibai, 0 - 2 km (Ondarroa herrirako sarrera).

Oka ibaiaren arroa

Oka, 0 - 4 km (Golakorekiko elkargunea).

Karrantza ibaiaren arroa

Karrantza, 0 - 1,8 km (Riosecorekiko elkargunea)

Barbadun edo Mercadillo ibaiaren arroa

Barbadun, 0 - 6,5 km (Birutzitik gertu, Galdames udalerrian).

Butroe ibaiaren arroa

Butroe, 0 - 19,5 km (Karmelo Etxegarai kalean ibai honen gainean dagoen zubia).

**Tramos de Nivel V** ( $400 < C \leq 600$  Km.<sup>2</sup>)Cuenca del Nervión

Nervión, 24,4 a 37,3 Km (confluencia con el Larrumbe).

Cuenca del Ibaizábal

Ibaizábal, de 0 a 6,6 Km (Puente del peaje para la autopista en Usánsolo).

Cuenca del Cadagua

Cadagua, de 0 a 14,6 Km (confluencia con el Izalde).

**Tramos de Nivel IV** ( $200 < C \leq 400$  Km.<sup>2</sup>)Cuenca del Nervión

Nervión, de 37,3 a 47,3 Km (confluencia con el Palanca).

Cuenca del Ibaizábal

Ibaizábal, de 6,6 a 22,8 Km (confluencia con el S. Antonio).

Cuenca del Cadagua

Cadagua, de 14,6 a 24,7 Km (confluencia con el Arroyo San Cristobal).

**Tramos de Nivel III** ( $100 < C \leq 200$  Km.<sup>2</sup>).Cuenca del Nervión

Nervión, de 47,3 a 58,4 Km (confluencia con el Pagatxa).

Altube, de 0 a 10,7 Km (confluencia con el Argaitza).

Cuenca del Ibaizábal

Ibaizábal, de 22,8 a 32,3 Km (confluencia con el Solozabal).

Arratia, de 0 a 5,5 Km (confluencia con el Indusi).

Cuenca del Cadagua

Cadagua, de 24,7 a 36 Km (límite de la CAPV).

Herrerías, de 0 a 6,4 Km (confluencia con el Rodaiega).

Izalde, de 0 a 1 Km (confluencia con el Herre-rías).

Cuenca del Artibai

Artibai, de 0 a 2 Km (entrada al pueblo de Ondarroa).

Cuenca del Oka

Oka, de 0 a 4 Km (confluencia con el Golako).

Cuenca del Karrantza

Karrantza, de 0 a 1,8 Km (confluencia con el Rioseco).

Cuenca del Barbadún o Mercadillo

Barbadún, de 0 a 6,5 Km (cerca de Birutxi, en el municipio de Galdames).

Cuenca del Butrón

Butrón, de 0 a 19,5 Km (puente sobre este río de la calle Karmelo Etxegarai).

**II kategoriako ibaitarteak (50 < A ≤ 100 Km.<sup>2</sup>)**Nerbioi ibaiaren arroa

Nerbioi, 58,4 - 67,8 km (A-4907 errepideko zubia).

Altube, 10,7 - 18 km (Ventillasekiko elkargunea)

Ibaizabal ibaiaren arroa

Ibaizabal, 32,3 - 38,4 km (Puztinarekiko elkargunea)

Arratia, 5,5 - 12,7 km (Gorbea errekarrekiko elkargunea)

Elorrio, 0 - 5 km (Buztinarekiko elkargunea)

Kadagua ibaiaren arroa

Herrerías, 6,4 - 10 km (Ibalzibarrekiko elkargunea).

Izalde, 1 - 7,7 km (Okondo udalerriko Jandiola auzoa gurutzatzen duen errekarrekiko elkargunea).

Artibai ibaiaren arroa

Artibai, 2 - 16,5 km (Urkorekiko elkargunea)

Oka ibaiaren arroa

Oka, 4 - 6,9 km (Mikienerrekiko elkargunea)

Karrantza ibaiaren arroa

Karrantza, 1,8 - 6 km (Presarekiko elkargunea)

Barbadun edo Mercadillo ibaiaren arroa

Barbadun, 6,5 - 12 km (Limonekiko elkargunea)

Butroe ibaiaren arroa

Butroe, 19,5 - 29,7 km (Caprinicosekiko elkargunea)

Galindo ibaiaren arroa

Galindo, 0 - 1,6 km (Ballontirekiko elkargunea)

Aguera ibaiaren arroa

Aguera, 0 - 2,5 km (Ubegiarekiko elkargunea)

Lea ibaiaren arroa

Lea, 0 - 8 km (Telleria errekarrekiko elkargunea)

Asua ibaiaren arroa

